

And the Oscar goes to... The Library of Ermua

Martxoaren 26an, hamar urte bete ziren Ermuko Liburutegia Teresa Murga eraikinean jarri zela eta bertako arduradunek erabiltzaileekin batera ospatu zuten egun hori. Udaleko zinegotzi eta langileez gain, talde ugarietako ordezkariak egon ziren gonbidatuak iluntzeko ekitaldi hartara. "Zer suposatu du zuentzat Liburutegiak?" eta "Datozen urteetarako, zer eskatuko zenioke?" galdera bikoitzari erantzuten kultur, hezkuntza eta kirol arloko hainbat talde jarri zituzten martxan, taldearen arabera ekarpen desberdinak eginez. Denek baina komunean mezu beretsua: liburuzainen kudeaketa txalogarria eta zerbitzuaren herriarrekiko hurbiltasuna. Guztiagatik, herriko antzerki taldeek opari berezi bat izan zuten kudeatzaileentzat: urrezko OSCAR estatui-lla ematea LIBURUTEGIRIK ONENA arloan. Hollywoodekoaren antzera, ekitaldian txalo eta goraipamenekin batera, izan zen tartetxoa musika, gastronomia eta posesiarendako ere. Honen adibide Olatz Masie eta Iñigo Aranguren gazteek Liburutegia omentzeko sortutako ondoko lau ahapaldiok, 'Mate'ko azterketan zorioneko 'hamarra' lortzen lagundu dien Teresa Murga Liburutegiari eskainiak:



1. Ermuko hiri erdian dago lurrean konkorra, antzinatean zegoen haitz ilun eta gogorra. Ikustean jakintza zegoela lehorra, orduan eraiki zuten kulturaren gotorra.
2. Horrela jaio zen Ermuan Liburutegi ederra, argiak betetzen du erdia, eskuina eta ezkerre. Hor ez duzu aurkituko ikasgiro okerra, bertan kokatzen baita isiltasunaren bazterra.
3. "Azterketa daukat, ezin dut ikasi, Lengua eta Mate ditut nahasi!" Liburutegira joan eta berriro hasi, Teresa Murgari esker 'hamarra' irabazi.
4. Ikasi eta ikasi amaitzen dut gaia, laguna dakusat alboko mahaian. Berak galdetzen dit: "Nola dago anaia?" Txutxumutxuka dago liburutegian giro alaia.



Hara bertaratutakoen esanetatik islatu daitekeena da, nota jartzen hasita, 10 hori merezimendu osoz irabazia duela Liburutegiak. Eta ez zegoen berba eder eta lausengariak esateko propio erositako aktorerik!

Estibalitz González

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

EGaña
ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

Drogeteniturrri, 167 zkia.

ALBOKA

**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoiaia musikala
- Klarinetea
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpetea
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com